

# GARDENTASUNAREN EGOERA

GASTEIZKO UDALAREN PUBLIZITATE AKTIBOAREN ETA INFORMAZIO  
PUBLIKORAKO SARBIDEAREN INGURUKO BETEBEHARREN BETETZE  
-MAILARI BURUZKO TXOSTENA - 2017KO EKITALDIA -

GARDENTASUNAREN ETA EDUKIEN ATALA

2018KO APIRILA





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera.....</b>	<b>3. orria</b>
1.1 Lege- eta arau- esparrua .....	3. orria
1.2 Txosten honi buruz.....	3. orria
<b>2. Publizitate aktiboa.....</b>	<b>5. orria</b>
Printzipio orrokorak.....	5. orria
Gardentasun Atariko orri nagusia.....	6. orria
Erakundeari, antolamenduari eta plangintzari buruzko informazioa .....	7. orria
Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa.....	9. orria
Ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioa .....	11. orria
Langileei buruzko informazioa .....	14. orria
Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa .....	15. orria
Beste zenbait alderdi .....	16. orria
Erakunde autonomoak eta udal enpresak .....	17. orria
<b>3. Informazio publikoa eskuratzea.....</b>	<b>23. orria</b>
3.1 Lege- esparrua eta prozedura .....	23. orria
3.2 Estatistikak.....	24. orria
<b>4. Gardentasun Atarira egindako bisitak .....</b>	<b>26. orria</b>
<b>5. Ondorioak .....</b>	<b>29. orria</b>
<b>6. Eranskin grafikoa: betetze maila .....</b>	<b>31. orria</b>



## Sarrera

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikulua betetze aldera, **Gasteizko Udalaren Publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txosten hau** aurkezten da, 2017ari dagokiona. Txosten honetan honakoak aztertu eta jaso dira: Gasteizko udalak eta bere menpeko erakunde autonomo eta udal enpresek betebeharrak horiekiko izan duten betetze maila, gardentasun atarian gehien kontsultatu diren alderdiak eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilerari buruzko datuak.

### 1.1 Lege- eta arau-esparrua

**Oinarrizko bi arauk** xedatzen dituzte dokumentu honek aipatzen dituen betebeharrak – gardentasunari lotuta daudenak eta era berean Udalari aplikatzekoak zaizkion beste legegintza-ingurune batzuetan agertzen direnak bazter utzi gabe–:

- **19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa** (2013ko abenduaren 10eko BOE, 295 zk)
- **2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa** (2016ko apirilaren 14ko EHAA, 70. zk.)

Bi legegintza-testuetan, hainbat betebeharrak biltzen dira, udalaren antolamendu osoa hartzen duten **publizitate aktiboari eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera eraginkorraren kudeaketari buruzkoak**.

Sailen, Erakunde autonomoen eta Udal enpresen arteko beharrezko koordinazio-lana egiteko, Gasteizko Udalak, efizientziari eta gastu publikoaren aurrezkiari lotutako irizpideetan oinarrituz, zeregin horiek Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzuaren barnean dagoen Gardentasunaren eta Edukien Atalari esleitu dizkio. Horrenbestez, atal horrek egin du txosten hau.

### 1.2 Txosten honi buruz

Publizitate aktiboaren beharra zehazten duten bi legeetako alderdi nagusiak aurkezten dira, atalez atal. Jarraitu den eskema izan da hasiera batean legeen betebeharrak adieraztea (betiere nahitaez bete beharreko gutxieneko gisa hartu behar direnak), legeria bakoitzak eskatzen duenaren laburpen logikoa eginez eta, beti, gauzak gaineratuz<sup>1</sup>. Ez da bereizketarik egiten,

<sup>1</sup> Zera esan nahi dugu: 19/2013 Legeak esaten badu “Aurrekontuak argitaratu behar direla aurrekontu-partida nagusiak deskribatuz eta exekuzio-egoerari eta administrazio publikoen aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak betetzeari buruzko informazio egune-



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

hobeto ulertzeko beharrezkoa denean salbu, 19/2013 Legeak eskatzen duen betekizunaren eta 2/2016 Legeak eskatzen duenaren artean, izan ere 19/2013 Legea Lege Organikoa ez denez hierarkia-maila argirik ez dagoelako. Aitzitik, euskal Legea udal-antolamenduari dagozkion gaie-tan zehatzagoa denez gero, lehenetsi egin dira euskal legeak erabiltzen dituen definizioak, eta ez dago 19/2013 Legeak eskatzen duen publizitate aktiboko ia betebeharrak bakar bat ere euskal legeak eskatzen ez duenik termino berdinetan edota termino osatuago edo zehatzagoetan.

Betebeharrak termino kualitatiboetan ematen badira ere (informaziorako eranskin grafiko batean islatu dira), alderdi kualitatibo handia dute, datuak eta informazioa emateaz gain, horiek ulergarriak, argiak eta modu eguneratuan agertu behar baitute. Horrenbestez, betebeharraren zerrenda baino lehen, informazio honen argitalpena arautu behar duten printzipio orokorrak adieraziko ditugu.

---

ratu eta ulergarria emanez” eta 2/2016 Legeak aurrekontuen itemari gaineratzen badio “argitara eman-gorri direla osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean”, betebeharraren birdefinizio bat egin da, bertsiorik osatuenean azalduz.



## Publicitate aktiboa

### PRINTZIPIO OROKORRAK

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikulua ezartzen ditu **Legeak behartutako subjektuen publikitate aktiboa arautu behar duten printzipio orokorrak**; eta Gasteizko udala behartutako subjektu horien artean dago. Printzipio horien artean biltzen da gardentasun-betebeharren mendeko informazioa (“ezagutu beharrekoa den informazioa jardun publikoaren funtzionamendu eta kontrolari lotutako jardueraren gardentasuna bermatzeko”):

- **Aldizka eta eguneratua** argitaratuko da.
- Dagozkion **egoitza elektroniko edo web-orrietan** argitaratuko da.
- **Argi, era antolatuan** eta ulertzeko moduan argitaratuko da eta, ahal bada, **berriaz erabiltzeko moduko formatuetan**.

Legeak adierazten duenez, **bitartekoak ezarriko dira argitaratutako informazioa eskuragarria, kalitatezkoa eta elkar eragiteko eta berrerabiltzeko modukoa** izan dadin, bai eta informazio hori identifikatu eta lokalizatzeko beharrezkoak direnak ere. Era berean, honakoa xedatzen du: “Informazio guztia ulergarria, erraz eskuratzeko modukoa eta doakoa izango da, eta desgaituentzat eskuragarri egongo da bitarteko edo formatu egokien bidez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezten, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioari jarraiki.”

Lehen abiapuntu hau argi geratzen da erakundearen webguneak (<http://www.vitoria-gasteiz.org>) aitortutako irisgarritasun politikan, eta webgune hori osatzen duten orrialdeen oinetan kontsulta daiteke<sup>2</sup>. Udalaren web-ataria da, beraz, publicitate aktiboko betebeharrek aipatzen duten informazioaren gordailuzain nagusia. Udalaren webgunearen konfigurazioaren ondorioz informazio-itxak hainbat lekutatik eskura daitezke, baina gardentasun-gunea (<http://www.vitoria-gasteiz.org/gardentasuna>) eratu da leku horietako gehienak lotzeko gune zentral gisa.<sup>3</sup>

<sup>2</sup> [Irisgarritasun atala](#). Udalaren webguneak W3Caren barneko WAI lan-taldeak landutako ACAG 2.0 arauen A bikoitza mailarako definitutako jarraibideak betetzen ditu; era berean, hainbat nazioarteko estandar betetzen ditu eta Inclusive bezalako irisgarritasun-tresnak ditu. Webgunearen diseinua, gainera, responsive da, eta beraz edozein gailutara egokitzen da.

<sup>3</sup> Horrek ez du eragozten informazioa gaika taldekatuta egotea (adibidez, aurrekontuei buruzko informazioa Ogasunaren atalean aurki daiteke) eta udalaren webgunetik edo kanpoko beste bilatzaile batzuetatik bertara iritsi ahal izatea.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bestalde, **zorrotz arautzen** ditu toki erakundearen publizitate aktiboko betebeharrak, eta eremu materialen arabera banatzen ditu **modu zehatz eta xehatuan**. 50. artikuluko "printzipio orokorrak" atalean, euskal legeak honakoa gehitzen die lehendik aipatu diren irisgarritasun- eta berrerabilgarritasun-printzipioei: "bermatu egingo da toki-administrazioen dokumentu eta euskarrietan ez dela hizkuntzaren erabilera sexistarik egiten", eta euskararen erabileraren normalizazioari buruzko legeria beteko dela, bereziki toki-erakundearen publizitate aktiboan euskararen erabilera sustatzean arretari dagokionez.

19/2013 Legearekin alderatuta dagoen berritasunetako bat da euskal Legeak esaten duela informazioak **"egiazkoa, erraz eskuratzeko modukoa, bereizkeriarik egiten ez duena, argia, erraza zehatza behar duela izan"**, eta era berean aipatzen duela batez ere **bideoak, grafikoak, argazkiak, marrazkiak** eta ematen den informazioaren nondik norakoak hobeto ulertzen laguntzen duten beste edozein konposizio-bide erabiliko dela, orria edo dokumentu-euskarria osatzeko. Izan ere, aipatutako 50. artikulua 6. puntuak zehazten duenez, "publizitate aktiboaren adierazpen grafikoak erabiliko dira, lehentasunez, publizitate aktiborako bitarteko gisa konplexutasun handiko gai eta datuen kasuan" eta adierazpen grafiko horiek **"nahitaez erabili beharko dira" izaera ekonomiko-finantzarioa duen edozein informazioaren kasuan**.

Txosten honetan, Udalak dituen publizitate aktiborako betebeharrak nola betetzen diren adierazten dugun heinean, printzipio orokor horiek zein puntutan betetzen diren ere adieraziko dugu.

## GARDENTASUN-ATARIKO ORRI NAGUSIA

Gardentasun-atariaren orri nagusian berrietarako atal bat dago, eta bertan atariko informazioaren eguneratzeen berri eman ohi da, eta, modu gehigarrian, open data atarikoak. Bi plataforma horiek izaera zabalagoko beste baten (Gobernu irekia) atal gisa antolatzen joan dira 2017an, eta 2018an bi plataformak bere baitan hartuko dituen atari bat jarriko da martxan. Orain abiatzeaz edo abiatu berri diren beste zenbait ere hartuko ditu barne, esaterako kontu-emateena, edo aurrekontuen informazioari buruzko webgunea (gerora arituko gara azken horretaz).

2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, **eguneratzei buruzko 75 berri** jarri dira. Informazio bat eguneratu den bakoitzean ez da berri bat sortu, baina sortu egin da herritarrentzat interesgarritzat jo diren edukiak eguneratu direnean.

Atariaren egituraren aldaketaren bat egin bada ere, ez da funtsezko aldaketarik egin 2017an. Aurreko ekitaldian bereizi egin da harremanetarako eta identifikaziorako informazio ofiziala ([Identifikatzeko eta harremanetan jartzeko datuak](#)), eta leku berezia hartu dute egoitza elektronikoa. Horrenbestez bereizi egiten da erakundearen identifikazioari buruzko lege-informazioa, eta banakatu egin dira legean gardentasun-atarirako aurreikusitako epigrafeak. Arestian aipatutako Gobernu irekiaren ataria abian jartzeaz gain, 2018an **ataria berrikusi eta berriz egituratzea aurreikusita dago**.



## **ERAKUNDEARI, ANTOLAMENDUARI ETA PLANGINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA**

19/2013 Legearen 6. artikulua eta 2/2016 Legearen 52. artikulua arabera

Eskatutako informazioa:

1. Toki-erakundearen organoak, beharrezkoak eta osagarriak, honako hauek adierazita: beraien titularrak (osaera), eta eginkizunak.
2. Aplikagarri zaizkion arauak.
3. Organo bakoitzaren gai-zerrendak eta hartzen dituzten erabakiak.
4. Erakundearen eta haren gobernu-taldeetan ardura politiko gorenaren duten pertsonen buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.
5. Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea.
6. Antolakuntza-egitura eguneratua: organo desberdinetako arduradunak biltzen dituen organigrama, berariaz aipatuz zuzendaritzako edo erantzukizuneko lanpostuak, lanpostu horiek betetzeko zer profil behar den eta lanpostu horiek betetzen dituztenek zer ibilbide profesional daukaten.
7. Toki-ordezkarien ondasun eta jardueren buruzko urteroko aitorpenak.
8. Behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda.
9. Gobernu-plana, agintaldiko plana edo jardura-plana. Aldian-aldian, horien betetze-maila.
10. Urteko eta urte anitzeko plan eta programak (xede zehatzak, eta horiek gauzatzeko aurreikusitako jarduerak, baliabideak eta epea). Xede horien gauzatzeko-mailaren aldizkako ebaluazio eta argitalpena.
11. Udaleko alderdi politikoen buruzko informazioa.
12. Aholku-organok eta gizarte-partaidetzakoak, haien jardura eta erabakiak barne.
13. Edonolako erakunde instrumentalak, eta arduradun gorenak zein diren eta haien antolamendu-egitura zer-nolakoa den ere adierazi beharko da.
14. Toki-erakundeek argitara emango dituzte, beren web-orri instituzionalan eta informazio orokorreko gainerako medio propioetan, beren posta-helbidea, beren helbide elektronikoa eta erakundeak herritarrentzat dituen irispide orokorreko telefono-zenbakiak, eta adieraziko dituzte beren hautetsi-karguen eta zuzendaritza-karguen interakzio-moduak.
15. Halaber, ezagutzera emango da zein kanaletatik eskaintzen diren herritarren arretarako zerbitzuak eta zein kanaletatik gauzatu daitezkeen herritarren parte-hartzea.

Kapitulu honen betebeharrak erantzuteko, Gasteizko Udalaren Gardentasun Atariak atal espezifiko bat dauka ([Erakundearekin eta antolakuntzarekin lotutako informazioa](#)) eta bertan informazio-item hauetarako estekak eskaintzen dira:

### Antolakuntza politikoa

- [Udalaren antolakuntza politikoa](#)
- [Udalbatza: zinegotziak](#)



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

- [Tokiko Gobernu Batzarra](#)
- [Gobernu organoak](#)
- [Partaidetza-organoak: Elkarguneak, Auzoguneak eta Gizarte Kontseilua](#)
- [Udal Talde Politikoak](#)
- [Politikariek izendatutako langileak eta goi-karguak](#)
- [Behin-behineko langileen, kargu hautetsien eta zuzendaritza-organoen ordain-sariak](#)
- [Goi karguen Jarduera eta Ondasunen Erregistroa](#)
- [Udalbatzaren bilkuren emanaldiak](#)
- [Udalari eragiten dioten ebazpen judizialak.](#)

#### Administrazio-antolakuntza

- [Udalaren antolakuntza politikoaren egitura osoa](#)
- [Organigrama orokorra.](#) (Eguneratzea: 2017/02/08)
- [Organigrama, sailez sail.](#) (Eguneratzea: 2017/02/08)
- [Udal egoitzen kokapena](#)
- [Udal langileak](#)
- [Lanpostuen zerrenda](#)
- [Udalaren enplegu-eskaintza](#)
- [Ordainsarien taula, lanpostuka](#)
- [Gobernu eta parte-hartze organoen akta eta gai-zerrenden kontsulta](#)
- [Udal-araudia](#)
- [Aholkularitza juridikoko organoen barne txostenak](#)

**Erakundearekin eta antolakuntzarekin lotutako informazioaren atalak arestian adierazita-ko 15 puntuetan eskatutako informazio-itemetarako sarrerak ditu**, baina 14 eta 15 puntuak salbuespen dira, 14.a identifikatzeko eta harremanetarako datuen atalean jasotzen baita, eta, 15.a berriz, udalaren webguneko "zure proposamenarekin parte hartu" atalean. **Informazioa eguneratua dago**, bai argitaratzen diren antolakuntza dekretuen arabera (antolakuntza politikoa eta administratiboa, zein lanpostuen zerrendak) bai web orrian sei hilabetean behin edo urtero sartzen diren zerrenden arabera (udalari eta udal enpresei eragiten dituen epai judizialen kasuan, esaterako udal araudia edo udalbatzaren edo ikuskatzaile nagusiaren txostenak).

Aipatu diren 14. eta 15. puntuen berezitasunez gain, 15 puntu horietan bada aipa daitekeen **bestelako salbuespenik**:

- 5. puntua (alkatearen zein zinegotzien **arduraldi-araubidea** ) erantsitako bi artxibotan jasotzen da; batean aurreko ekitaldiko -egun 2017- ordainsari gordina, guztira, eta bestean, indarrean dagoen ekitaldiko hileko ordainsari gordina. Edukiren batean hobe litza-



teke **html formatuan** agertzea — kargu hautetsi bakoitzari buruzko informazio, esaterako—, informazioa **errazago eskuratuko litzateke** eta.

- 6. puntuan jasotako alderdiak (**antolakuntza-egitura eguneratua**) zati batean betetzen dira. Erantzukizuneko lanpostuak betetzen dituzten pertsonen izen-deiturak agertzen badira ere, **lanpostu horiek betetzeko eskatzen den profilari buruzko informazioa agertu beharko litzateke**, edo, lanpostu horiek betetzen dituzten pertsonen ibilbide profesionala (bada kargu hautetsien curriculumari buruzko informazioa, baina ez dago izendapenezko kargudunena).
- 9. eta 10. puntuak (**gobernu-planak eta urteko eta urte anitzeko planak eta programak**) ez daude bilduta Gardentasun Atariaren epigrafe honetan, baizik eta [Herriarekiko eta gizartearekiko harremanak](#) epigrafean, non legealdirako planarekiko lotura dagoen (legealdirako planetik plan eta programetara sartzen da). **Legealdi-planak**, gainera, berriazko lotura du webguneko menu nagusiko “Tramiteak eta udal gobernu” eremutik. Plan honen betetze-maila ebaluatu eta aldizka argitaratzeko konpromisoari dagokionez, **2018ko lehen hiruhilekoan kontu-emateen web plataforma** (<https://www.vitoria-gasteiz.org/kontuematea>) jarri da abian udal atarian, eta planaren betetze-mailari buruzko informazioa eskaintzen da, eskala-sisteman (konpromisoa-ildo-a-ardatza-plana), eta aurrerapen maila egiaztatzeke balio duten alderdietarako loturak ageri dira.

Informazioa elebitan dago, gaztelaniaz bakarrik dauden artxibo erantsi batzuk izan ezik, eta genero-berdintasunaren esparrua errespetatzen du. Informazio eguneratua da, egiazkoa, ez oso zaila, eta irisgarritasun unibertsalaren estandarrak betetzen ditu, bai html bai pdf artxiboetan.

## GARRANTZI JURIDIKO-NORMATIBOKO INFORMAZIOA

19/2013 Legearen 7. artikulua eta 2/2016 Legearen 53. artikulua arabera

Eskatutako informazioa:

1. Publikoak izango dira udal-organismoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
2. Toki-erakundearen ordenantza, erregelamendu eta aurrekontuen proiektuak, berandue-nera ere, hasierako onarpena eman eta berehala argitaratuko dira. Irizpenak eskatzea nahitaezkoa denean, aholku-organoei irizpenak eskatzen zaizkienean argitaratuko dira, eta horrek ez du eragingo, nahitaez, entzunaldi publikoa ematea.
3. Arau-testuak egiteko espedienteetako memoriak eta txostenak; bereziki uztailaren 3ko 1083/2009 Errege Dekretuak araututako arau-eraginaren analisiari buruzko txostena.
4. Indarreko legeria sektorialari jarraiki, izapidetze-aldian jendaurrean jarri behar diren dokumentuak.
5. Publikoak izango dira, halaber, udal-organismoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
6. Aholku-organoen txosten edo irizpenak ere publikoak izango dira.
7. Herritarren partaidetzako prozesuaren txostena eta ondorioak, halakorik baldin badago.



8. Hasita, martxan eta bukatuta dauden partaidetzako prozesuak. Eta bereziki, prozesu horiekin lotutako txostenak.

Bi artikulua horiek aipatzen dituzten informazio-itxak udalaren webguneko hainbat gunetan agertzen dira eta Gardentasun Atariko hainbat gunetatik lortzen dira. 2. eta 4. puntuak, adibidez, [udal araudiaren orrian](http://www.vitoria-gasteiz.org/urrekontuak) (eta aurrekontuei dagokien zatia aurrekontuaren orrian ere bai [www.vitoria-gasteiz.org/urrekontuak](http://www.vitoria-gasteiz.org/urrekontuak)), baita 5. puntuaren definizioan sartzen diren erabakiak (dekretuak, erabakiak eta abar). 7. eta 8. puntuak espazio propioa dute herritarren partaidetzari buruzko webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org/partehartzea](http://www.vitoria-gasteiz.org/partehartzea)). Bi espazioak Gardentasun Ataritik dute lotura aipatutako ataletan (Erakundearekin eta antolakuntzarekin lotutako informazioa eta Herritarrekiko eta Gizartearekiko harremanei buruzko informazioa); aurrekontuei dagokien zatia [ekonomi eta finantza egoerari buruzko informazioaren atalean](#). 6. puntuak, aholku-organoan txosten edo irizpenei buruzkoak, hainbat orri ditu [lotuta](#) Erakundearekin eta antolakuntzarekin lotutako informazioa ataletik.

Epigrafe honetan adierazitako alderdiei **Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 6ko 39/2015 Legearen 132. artikuluan (arau-plangintza) ezarritako aurreikuspenak gehitu behar zaizkie**. Honela dio:

*132. artikulua. Arau-plangintza*

*1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak.*

*2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratuko da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.*

Hori dela eta, publizitate aktiborako beste betebeharrak bat gehituko dugu.

1. 9. Urteko Araugintza Plana argitaratzen da, zeinek hurrengo urtean onesteko igorriko diren erregelamendu-ekimenak jasotzen baititu.

Hauxe dute xede 132. artikulua eta 39/2015 Legearen aurreikusitako beste batzuek (bereziki 130. eta 133. a, arauak prestatzean herritarren partaidetzari dagokiena): alde aurretik (ex ante) arau plangintza hobetzea, eta gerora (ex post) ebaluazioa sendotzea, antolamenduaren aurreikuspenak areagotzearen aldeko apustua eginda eta antolamenduak araudi onen printzipioekiko duen egokitzapena berrikusita. **Une honetan, udalaren webgunean ez dago araugintza plan hori argitaratuta**. Ez da indarrean dauden arauen ebaluazioaren zabalpen-rako ekintza proaktiborik egiten.

Hasierako zortzi puntuetara itzuliz, **1. a ez dago web gunean inon islatuta**, ez baita erabaki horiek identifikatzeko irizpideak zehazteko lanik egin. Hirugarren atalean aipatutako **azterketa oroitidazkiak ere ez dira ageri**. Hala ere, araudiarekin lotutako edukiak erregularatasunez eguneratzen dira: arau testuak [Arauk](#) atalean argitaratzen dira hasierako onespen fasean daudenean eta behin betiko onartzen direnean.

Araudiak, parte-hartze prozesuei lotutako dokumentuak eta abar elebitan daude, baina dekretu eta txosten asko (Osoko Bilkurako idazkaritzarenak, Kontu-hartzailetza orokorrarenak eta abar) soilik gaztelaniaz argitaratzen dira.



## **EKONOMIARI, AURREKONTUARI ETA ESTADISTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA**

19/2013 Legearen 8. artikulua eta 2/2016 Legearen 55. eta 57. artikuluen arabera

Eskatutako informazioa:

1. Kontratu guztiak, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatuzaileen kopurua, esleipendunaren nortasuna, eta kontratuaren aldaketak eta luzapenak. Kontratuetan atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira.
2. Kontratu txikiak hiru hilabete behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.
3. Era berean, argitaratuko dira datu estatistikoak sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean hartzen duten ehunekoari buruz.
4. Ezarritako zigorrak, hala badagokio, kontratisten ez-betetzeengatik.
5. Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak eta adostutako betebeharrak ekonomikoak –halakorik baldin badago–.
6. Sinatutako kudeaketa-gomendioak ere argitaratuko dira, honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta azpikontratazioak, berariaz aipatuz esleipendunak, esleipena egiteko jarraitutako prozedura eta esleipenaren zenbatekoa.
7. Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak: zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak.
8. Aurrekontuak, aurrekontu-partida nagusiak deskribatuz eta exekuzio-egoerari buruzko informazio eguneratu eta ulergarria emanez. Argitara emango dira osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean, partida nagusiak deskribatuz eta informazio zehatza emanez beraien exekuzio-maila ezagutzeko eta ekitaldian zehar onetsitako aurrekontu-aldaketak jakiteko.
9. Aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak betetzeari buruzko informazioa.
10. Argitaratu beharreko urteko kontuak, eta kanpo-kontrolako organoek horiei buruz egiten dituzten kontu-auditorien eta fiskalizazioen txostenak.
11. Honen aplikazio-eremuko entitateetako goi-kargu eta arduradun nagusiek jasotzen dituzten urteko ordainsariak. Halaber, kargua uztean jasotako kalte-ordainak ere argitaratuko dira, jaso badituzte.
12. Bateragarritasuna baimentzeko edo aitortzeko ebazpenak, langile publikoei eragiten dietenak, eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguek edo autonomia-erkidegoko edo tokiko araudien arabera horien pareko direnek kargua utzitakoan jardura pribatuan jarduteko baimentzen dituzten ebazpenak.



13. Tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urteko aitorpenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera.
14. Beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezko estatistika-informazioa, administrazio eskudunak xedatutakoaren arabera.
15. Hornitzaileen ordainketaren arloko berankortasunaren gaineko legeria betetzeko epeak.
16. Ondareko ondasun higiezinaren zerrenda, hala bere jabetzakoak direnena nola haien gaineko eskubide errealeen bat dutenena, eta hala badagokio, zein erakunderi laga zaizkion.

Ekonomia- eta finantza-izaerako itemak ia berdina dira erreferentzia gisa hartu ditugun bi arauetan, baina euskal Legea, sarreran adierazi den bezala, zorrotzagoa eta zehatzagoa da gutxieneko betekizunak definitzeko garaian.

Aipatutako 16 item horietako gehienei Gardentasun-atariko [Ekonomia- eta finantza-egoerari buruzko informazioa](#) atalean erantzuten zaie, baina kasu honetan, hainbat elementu open data (<http://www.vitoria-gasteiz.org/datuirekiak>), atarian ere badaude formatu irekian, eta horrek 2/2016 Legearen 59 eta 60. artikuluetako betebeharrak erantzuten die<sup>4</sup>. Beste item batzuk, adibidez ondasun- eta bateragarritasun-aitorpenak (12. eta 13. itemak) edo goi-karguen ordain-sariak (11. itema) [erakundearekin eta antolamenduarekin lotutako informazioa](#) ataletik lortzen dira.

Halaber, Ekonomia- eta finantza-egoerari buruzko atala **hiru zatitan banatzen da: aurrekontuei buruzko informazioa, kontratazio eta ondasunari buruzko informazioa eta kontu-emateak**; publizitate aktiboko betebeharrak betetzen dituzten hainbat lekutarako estekak dituzte eta **erreferentziako bi legeek adierazten dituzten gutxieneko datuei gaineratutako datuak** jasotzen dituzte. Alkatearen agendarekin lotutako gastuen edota zuzendaritza-taldearen ordezkartza-gastuen kasua da hori.

### *Aurrekontuei buruzko informazioa*

---

<sup>4</sup> 59. artikulua, datuen irekitasunari buruzkoak, adierazten du beharrezkoak diren ekintzak sustatu beharko direla datuen benetako irekitasunerako, eta berrerabili ahal izateko. 60. artikulua, informazioaren berrerabilpenari buruzkoak, bestalde, zera adierazten du: “toki-erakundeek informazio publikoa berrerabili dadin bultzatuko dute”. Bi artikuluek, 19/2013 Legearen 11. artikulua araberak gardentasun-ataria izan beharko duen elkarreragingarritasunaren printzipioarekin batera, Administrazioek gobernu irekien ereduaren arabera egin behar duten datu irekien politika publikoaren oinarriak ezartzen dituzte. Gasteizko Udala 2016an hasi zen bere datuak formatu ireki eta berrerabilgarrietan argitaratzen (elkarreragingarriak indarrean dauden legezko eta arauzko xedapenen arabera), eta pixkanaka berrerabilgaitzeko eskaintako datuen katalogoa handitzen ari da. Datu irekiei buruzko udal politika gardentasun-proiektu propioaren zati da, eta datu-izaera duten publizitate aktiboko ataletan eskatutako item guztiak [www.vitoria-gasteiz.org/opendata](http://www.vitoria-gasteiz.org/opendata) webgunean argitaratuko dira. Txosten hau egin denean, datu irekien atariak 132 datu-multzo ireki ditu, 358 artxibo desberdin guztira.



- [Udal aurrekontuak: orri nagusia](#)
- [Egungo udal aurrekontuak](#)
- [Ekonomia- eta aurrekontu- adierazleak](#)
- [Aurrekontu-egonkortasuna](#)
- [Indarrean dauden ordenantza fiskalak](#)
- [Tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuen azterketak](#)
- [Zergak ordaintzeko egutegia](#)

*Kontratazio eta ondasunari buruzko informazioa*

- [Kontratazioa: motak eta prozedura](#)
- [Kontratatzailearen profila](#)
- [Kontratuen historikoaren kontsulta](#)
- [Kontratazio Mahaia: funtzionamendua, egutegia eta aktak](#)
- [Kontratu, hornitzaile, emakida eta hitzarmenen estatistika eta zerrendak](#)
- [Udal ondasunen inbentarioa](#)

*Kontu-ematea*

- [Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Gasteizko Udalari buruz egindako txostenak](#)
- [Aparteko diru-kontaketa korporazio aldaketa dela eta, 2015eko ekainaren 12ko dataz.](#)
- [Alkatearen erakunde-jardueratik eratorritako gastuak](#)
- [Alkatearen, gobernu-taldearen eta zuzendarien ordezkartza eta bidaia gastuak](#)
- [Diru-laguntza eta laguntza publikoak \(jasoak eta emandakoak\)](#)
- [Aurrekontuaren gauzatze-egoera \(open data\)](#)

Datuak 2016ko aurrekontuaren itxiera-datan eguneratuta daude. **Txosten hau egiteko orduan, ez dago 2017ko aurrekontuei erreferentzia egiten dion daturik**, prozedura eta epe arrazoiak direla kausa. Hori gertatzen da, esaterako, ekonomia eta finantza adierazleen zein inbentarioaren kasuan, izan ere kontu orokorra onestean kalkulatu baitira (maiatzetik ekainera bitartean) edo aurrekontu-likidazioaren menpe dauden beste batzuekin batera (diru-laguntzen zerrendak, esaterako). Inbentarioari dagokionez, txosten hau egin den garaian 2016ko informazioa gehitu da, eta 2017koarekin lanean ari da.

Atal honen hasieran aipatutako publizitate aktibo betebeharrei dagokienez, honakoak aipa daitezke:

- Kontratuak zerrenda bidez agertzen dira – osorik edo modu agregatuan kontratu txikiak badira–, [kontsulta-aplikazio](#) baterako lotura dute. Halaber, kontratuen estatistika-dokumentazioa (3. itema), hitzarmenen zerrendak, eta diru-laguntzak daude, baina **ez dira kontratuak bertan behera uzteko edo kontratuei uko egiteko erabakiak argitaratzen** (1. itema), ezta kontratistei adostutakoa ez betetzeagatik ezarritako zigorrak ere (4. itema). 1. itema partzialki betetzen da eta 4.a ez da betetzen.



- 5. itemari (hitzarmenak) eta 6. itemari (kudeaketa-gomendioak) dagokien informazioak osatuagoa izan beharko luke, betebeharren enuntziatuak iradokitzen duen bezala, zerrenda laburrak direlako eta soilik gaztelaniaz daudelako. Ez dira hitzarmenen testu osoak argitaratzen, [hirigintza hitzarmenak](#) direnean izan ezik.
- 14. itemari dagokionez –"beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezko estatistika-informazioa, administrazio eskudunak xedatutakoaren arabera argitaratuko dira", Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduan oinarrituz eta [Gardentasun Plan operatiboa](#) delakoaren bitartez, **zerbitzu-katalogoa definitzeko proiektu batean lanean dihardugu: informazio-sistema bat garatzea ahalbidetu** eta, besteak beste, gaur egun sailen txosten eta oroitidazkien bitartez bakarrik aurkezten den informazioa bilduko duena, hain zuzen ere. Egun ez da item hau betetzen.

**Euskararen erabileraren arloan** indarrean dauden xedapenei dagokienez, **atal honetan aurkitzen ditugu ez- betetze gehienak**, izan ere, kontratuen, ondarearen eta beste arlo batzuen zerrendak gaztelaniaz bakarrik daude, duela gutxi arte barne-kudeaketarako bakarrik erabiltzen ziren eta. Aurrekontuei dagokienez, 2017an gaztelaniaz bakarrik argitaratzen jarraitu bada ere, **2018aren hasieran ekin zaio open data atarian datuak jartzeari, eta 2012tik 2017ra bitarteko diru-sarrera eta gastuen xls agiriak sartu dira**. Oro har, 2016an baino *pdf* gutxiago erabili da, eta aurrera jarraitzen da datuak askatzen (formatu ireki eta berrerabilgarrietan jarri dira herritarrentzat eskuragarri).

Irizpide orokorrekin jarraituz, aipamen berezia egiten dugu aurrekontuei buruzko informazioarekin. Hau *ods* formatuan agertzen bada ere, oraindik ez du adierazpen grafikoak erabiltzeko printzipioa betetzen (txosten honen 6. orrian jaso da printzipio hori).. Horren haritik, 2017an alderdi hori lantzen hasi zen, eta **2018ko lehen erdian web atari berri bat jarriko da, non udal aurrekontuari buruzko informazioa agertuko baita, formatu grafikoan eta herritarrentzako ikuspegitik**.

## LANGILEEI BURUZKO INFORMAZIOA

### 2/2016 Legearen 56. artikulua arabera

Eskatutako informazioa:

1. Publiko egingo dira enplegu publikoaren eskaintzak, zenbateraino bete diren, eta funtzionario eta lan-kontratupeko langileentzako hautaketa-prozesuak –deialdiak, eta izendapenera arteko edo kontratua sinatu arteko egintza guzti-guztiak barne–.
2. Toki-administrazioek edo beste erakunde mota batzuek emandako ikastaro eta prestakuntza-programak.
3. Sindikatu-ordezkaritzako organoak osatzen dituzten kideak eta horretarako liberatuta dauden pertsonen kopurua, berariaz aipatu beharko delarik zer ordu-kreditu duten.
4. Lanpostuen zerrendek taula sinoptiko bat jaso beharko dute, non, kategoriaren araberrako ordainsari indibidualizatua jartzeaz gainera, antolamendu-tresna horren elementu garrantzitsuenak laburtuko diren.

Publizitate aktiboko betebeharrak, langileei dagokienez, erakundearekin eta antolakuntzarekin lotutako informazio ataleko loturekin betetzen dira, baita udalaren webguneko beste gune batzuekin ere (adibidez, [www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak](http://www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak), edo [udalaren enplegu-eskaintza](#) atala, Tramiteak eta udal gobernua fitxan). Eskaintzak argitaratu eta horien jarraipena



egiten da – Herritarren postontzian deialdi bakoitzarentzako [elkarrizketa eta informaziorako gu-  
ne](#) bereziak jartzen dira, eta zalantzak argitzeko txat gisa funtzionatzen dute—, [udal langileei  
buruzko datuak](#) ematen dira ([lanpostu zerrenda](#) eta [ordainsarien taulak](#) barne), baita eskatutako  
puntuak, langileen [prestakuntzako ikastaro eta programen](#) datuak, formatu irekian, eta eskatu-  
tako puntu guztiak ere, baina bada salbuespen bat:

- [Sindikatu-ordezkaritzako](#) 3. puntuari buruz ematen den informazioan, langileen or-  
dezkeri eta liberatuen kopuruarekin eta orduen urteko kopuru eta kostearekin batera,  
organo horietako kideen zerrenda gaineratu beharko litzateke.

## TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN ETA ZERBITZU-ZORROAREN GAINEKO INFORMAZIOA

### 2/2016 Legearen 54. artikulua araberaz

Eskatutako informazioa:

1. Toki-erakundeek modu argi, irisgarri, ulergarri eta errazean zabalduko dute zer sartzen  
den herritarrei eskaintzen dieten zerbitzu-zorroan, eta berariaz zehaztuko dute zer on-  
dasun eta prestazio eskaintzen dituen toki-erakundeak eta horien kostua zenbatekoa  
den, bai osotara eta bai pertsona bakoitzeko.
2. Era berean, publiko egingo dituzte zerbitzu-kartak edo pareko dokumentuak, eta, hala-  
korik badute, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko edo egiaztatzeko prozesuak.
3. Eskaintzen den zerbitzu bakoitzari buruzko ordutegia eta ordaindu beharreko prezio  
publikoak edo udal-tasak zehaztu beharko dira.
4. Gainera, informazio agregatua, laburra eta argia eskainiko da honako zerbitzu hauen  
gainean:
  - a. Mantentzea eta obrak; segurtasun publikoa eta babes zibila; hondakinen bilketa  
eta tratamendua; uraren kudeaketa; kale-garbiketa; jarduera ekonomikoak eta  
lizentziak; hirigintza eta ingurumena; kultura eta kirola; gizarte-zerbitzuak eta  
gizon eta emakumeen berdintasuna.

54. artikulua jasotzen dituen publizitate aktiboko betebeharrak udalaren webguneko eduki  
ezberdin eta anitz askorekin betetzen dira, esaterako antzokien webgunea  
([www.principalantzokia.org](http://www.principalantzokia.org)), udaltzaingoaren gunea ([www.vitoria-gasteiz.org/udaltzaingoa](http://www.vitoria-gasteiz.org/udaltzaingoa)) edo  
[ingurumena](#), besteak beste. Gardentasun Atariak, bestalde, aipatua dugun [Herritarrekiko eta  
gizartearekiko harremanak](#) atala du, eta bertan hainbat gairi buruzko informazioa ematen da:  
herritarren parte-hartze eta arreta, ingurumen-politika, mugikortasuna, hirigintza, obrak...

Azter ditzagun banan bana:

- 2/2016 Legeak jasotzen duen zerbitzu-zorroari dagokionez, webgunean [udalaren zer-  
bitzuen eta ekipamenduen katalogoa](#) eta prezio publikoak kalkulatzeko balio duten  
kosteei buruzko informazioa ([kostuei buruzko azterlanak](#)) aurki daitezke. Beharrezkoa  
izango litzateke zerbitzuen kostua eta horiengatik ordaintzen den prezioa erraz eta argi  
erlazionatzea. Horretaz gain, eta aurreko orrialdean adierazi dugunez, **zerbitzuen kata-  
logoaren definizioan lan egiten ari da** Gardentasun Plan Operatiboaren baitan, eta  
**2018an emango da argitara.**



- Bada udalean izandako [zerbitzu-kartei buruzko informazioa](#), baina une honetan ez dago horrelakorik, Diru-bilketa Zerbitzuarena izan ezik<sup>5</sup>. **Udalaren kalitate politikari buruzko informazio eguneratua egon beharko litzateke.**
- Udalean ematen den zerbitzu bakoitzaren ordutegiei, tasei eta gainerakoei buruzko informazioa zerbitzu horren informazioan bertan dago bilduta. [Gizarte etxeen webgunean](#), esaterako, zentro horien informazioa eskura daiteke, baina baita Principal antzokiaren webgunean edo [adinekoentzako zentro soziokulturalen webgunean](#) ere, hiru adibide aipatzearren.
- 4. itemari erantzuteko, gai horiei buruzko hainbat webgune daude: [mantentzea eta obrak](#); [segurtasun publikoa eta babes zibila](#); [hondakinen bilketa eta tratamendua](#); [uraren kudeaketa](#); [kale-garbitzeta](#); [jarduera ekonomikoak](#) eta [lizentziak](#); [hirigintza](#) eta [ingurumena](#); [kultura](#) eta [kirola](#); [gizarte-zerbitzuak](#) eta [gizon eta emakumeen arteko berdintasuna](#).

Kasu honetan, Legeak markatzen duen publizitate aktiboko betebeharreri erantzungo dien **informazioa** ez dago leku bakar batean bilduta espresuki, izan ere, udalaren webgunean **sakabanatuta** baitago. Aipatu 54. artikulua markatzen dituen betekizunak betetzen dira, baina 4. puntuko informazioa ez da eskaintzen modu agregatu, zehatz eta argian (zerbitzuen katalogoa argitaratzean hobetu egingo dela jotzen da).

Kasu guztietan informazioa bi hizkuntza ofizialetan dago (kostuen azterketak eratzen dituzten artxibo erantsiak salbu), irisgarritasun-betekizunak betetzen dira eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko udal politika errespetatzen da.

## BESTE ZENBAIT ALDERDI

### 2/2016 Legearen 58. eta 61. artikuluen arabera

Eskatutako informazioa bi artikuluen arabera:

1. Herritarrentzako interesekoa den informazioa ere argitaratuko da, ahaztu gabe betiere dagokion arautegi espezifikoak ezarritako informazio-betebeharrak.
2. Ezagutzera emango dira herritarren arretarako eta partaidetzarako zerbitzuak eskaintzeko dauden kanalak.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek gardentasunaren atari bat sortu ahal izango dute beren egoitza elektronikoetan edo erakunde-webgunetan, herritarrek eta erakundeek titulu honetan ezarritako gardentasun-betebeharren ondorioz publikoa den informazio oro eta toki-erakundeak eman nahi duen informazio guztia eskuratzea errazteko (nahitaezkoa da 20.000 biztanletik gora dituzten toki-erakundeetan).
4. Espazio bat prestatu beharko da herritarrek proposamenak eta iradokizunak egin ditzaten, bai eskatutako informazioari buruz, bai beren eskueran jarritako informazioari eta

---

<sup>5</sup> Berez hauxe gertatzen da: 2015ean San Martineko eraikinera sail asko lekualdatzearen ondorioz, berarrantolaketaren prozesua izan da udalean, eta aldaketak egin dira hainbat zerbitzutan (ASIAC desagertzea, adibidez). Horrenbestez, eta ordura arte zeuden zerbitzu-karta batzuk testuinguruz kanpo geratu dira. Egoera hau 2016ko txostenean jaso zen, eta 2017an ez da aldatu.



erabilitako formatu, programa edo lengoaia informatikoei buruz. Espazio horrek, era berean, aukera eman ahal izango du datuen irekitasunari eta berrerabilerari buruzko aplikazio informatikoen garapenean parte hartzeko.

5. Toki-erakundearen beraren erregelamendu bidez, gainera, informazioa herritarren artean zabaltzea eta herritarren partaidetza bultzatuko duten kanal anitzeko sistemak ezarri ahal izango dira.

Kasu honetan, Gasteizko Udalak gardentasun-atari bat dauka eta herritarrentzako interes orokorrekoak diren beste informazio batzuk argitaratzen ditu, ataritik edota webgune orokorretik eskura daitezkeenak. [Arretarako bideei](#) eta [herritarren partaidetzari](#) buruzko informazioa ematen da, eta informazio horri buruz herritarrek udalarekin harremanak izateko hainbat gune daude: [Herritarren postontzia](#) bera edo [open data](#) atariko atal berezi bat (“datuen irekiera eta berrerabilerari buruzko informatika-aplikazioen garapenean parte hartzea gaitzea”).

## ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA UDAL ENPRESAK

Udalaren erakunde autonomoek (Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, Luis Aranburu Musika Eskola eta José Uruñuela Dantza Kontserbatorioa) atal propioa dute Gardentasun Atarian; atal hori, era berean, udalaren webguneko guneei lotuta dago. Gardentasun-atari honetan ematen den informazioak webgune orokorreko eskema berari jarraitzen dio, baina hainbat informazio-item orokorrean daude sartuta (aurrekontu-informazioa edo goi-karguen ordainsariei buruzkoa, adibidez).

### Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI)

#### Erakundeari buruzko informazioa

- [Oinarrizko datuak: zereginak, zuzendaritza-organoak](#)
- [Ekipamenduak eta zerbitzuak](#)
- [IGIren estatutuak](#)
- [Zuzendaritza-kontseiluaren bilkurak: gai-zerrendak](#)
- [Lanpostuen Zerrenda.](#)
- [Langileen ordainsariak](#)
- [Goi-karguen ordainsariak](#)

#### Aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa

- [Aurrekontua: diru-sarrerak eta gastuak](#)
- [Jasotako diru-laguntzak eta laguntzak](#)
- [IGIko hornitzaileen zerrenda \(2014\) | IGIko hornitzaileen zerrenda \(2013\)](#)

#### Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak

- [2016ko jardueren oroitidazki](#) | [aurreko oroitidazkiak](#)



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

- [IGIk antolatutako jarduerak](#)

### **José Uruñuela Dantza Kontserbatorioa**

#### *Erakundeari buruzko informazioa*

- [Oinarrizko datuak: zereginak, zuzendaritza-organoak](#)
- [Kontserbatorioaren kokapena: helbidea eta harremanetan jartzea](#)
- [Zuzendaritza-kontseiluaren bilkurak: deialdiak eta gai-zerrendak](#)
- [Langileei buruzko informazioa](#)
- [Lanpostuen Zerrenda.](#)
- [Irakasleen ordainsariak, 2016an](#) (pdf)
- [Irakasleen ordainsariak, 2014an](#) (pdf)
- [Goi-karguen ordainsariak](#)

#### *Aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa*

- [Aurrekontua: diru-sarrerak eta gastuak](#)
  - [Dantza kontserbatorioaren kontratuak](#)
  - [Transferentziak eta jasotako diru-laguntzak](#)
  - [Kontserbatorioaren hornitzaileen zerrenda](#)
- Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak*
- [Jardueraren oroitidazkiak](#)
  - [Kontserbatorioko hezkuntza proiektua](#)
  - [Erreferentziako araudiak](#)
  - [Kontserbatorioak antolatutako jarduerak](#)
  - [Guraso elkarteak](#)
  - [Kontserbatorioari buruzko ohiko galderak](#)

### **Luis Aranburu Udal Musika Eskola**

#### *Erakundeari buruzko informazioa*

- [Oinarrizko datuak: zereginak, zuzendaritza-organoak](#)
- [Musika Eskolaren kokapena: helbidea eta harremanetan jartzea](#)
- [Langileei buruzko informazioa](#)
- [Zuzendaritza-kontseiluaren bilkurak: deialdiak eta gai-zerrendak](#)



- [Lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboa](#)
  - [Lanpostuen zerrenda](#) | [Aldaketa, 2016/07/04ko ALHAOn, 75. zk](#)
  - [Zuzendari nagusiaren izendapena \(2018/11/30ko ALHAO, 134. zk.\)](#).
  - Lan-kontratudun langileen ordainsariak (irakasle eta hezkuntzakoak) [2014. urtea](#) | [2015. urtea](#) | [2016. urtea](#)
  - [Goi-karguen ordainsariak](#)
  - Berriazko osagarri gehigarria, zuzendaritza karguarengatik eta betekizunengatik: [2014. urtea](#) | [2015. urtea](#) | [2016. urtea](#)
- Aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa*
- [Aurrekontua: diru-sarrerak eta gastuak](#)
  - [Jasotako diru-laguntzak eta laguntzak](#)
  - [Musika eskolaren 2017ko inbentarioa](#)
  - [Eskolaren hornitzaileen zerrenda, 2017](#) | [Eskolaren hornitzaileen zerrenda, 2016](#)
- Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak*
- [Jardueraren oroitidazkiak](#)
  - [Erreferentziako araudiak](#)
  - [Eskolak antolatutako jarduerak](#)
  - [Ikasgelak erabiltzeko araudia \(ikasle izan edo ez\)](#)
  - [Musika Eskolari buruzko ohiko galderak](#)

Erakunde autonomoen kasuan informazioa hainbat arlotan eguneratuta eta elebitan edo euskarazko bertsioa duela aurkezten da. **Badira eguneratu gabeko edukiak** ere (aurrekontuena, bereziki, izan ere 2018an aurrekontua luzatu egin da eta hasiera batean ez zen erakunde autonomoiei zegokiena argitaratu), baina **datu horiek sartzen ari dira**. Zenbait datu, hornitzaileen zerrendei dagokiena, adibidez, kontu orokorraren itxieraren menpe daude.

Udal enpresen kasuan (TUVISA, AMVISA eta 21 Zabalgunea), konpondu egin da aurreko txostenean ageri zen defizita, ez baitzen 21 zabalgunearen gardentasun-ataririk. Hiru kasuetan antzeko informazioa ematen da, eta erakunde autonomoen kasuan adierazi den eguneratze maila berean: oreka eza dago aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioan. Badira 2017ko hainbat datu baina, oro har, 2016ko datuak ematen dira. Agiri hau amaitzen ari garen honetan, **esan dezakegu eduki horiek prestatzen ari direla eta datozen asteetan gehituko dela informazio eguneratua.**



## TUVISA

### Erakundeari buruzko informazioa

- [Oinarrizko datuak: harremanetarako, jarduera-eremua eta zuzendaritza-organoak.](#)
- [Ekipamenduak eta langileak \(datu estatistikoak, ordezkaritza sindikala, kontratazio zerrendak...\)](#)
- [Sozietatearen estatutuak](#)
- [Enpresaren hitzarmen kolektiboa.](#)
- [Langileen ordainsariak \(aurrekontuen eranskina\)](#)

### Aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa

- [Diru-sarrerak eta gastuak, 2016](#)
- [Galera eta irabazien kontua, 2016](#)
- [Hornitzaileak: batz besteko prezioa eta gasolioaren esleipenak - 2015](#)
- [Lehiaketa eta kontratuak](#)
- [Kontratazioetarako jarraibideak](#)

### Harremanak herritarrekin

- [TUVISAk emandako zerbitzuei buruzko informazioa: lineak, ordutegiak...](#)
- [Urteko kontuak eta kudeaketa-txostena - 2014](#)
- [2014ko kontuen auditoria](#)

### Kudeaketa datuak:

- [2015ean garraio publikoa erabili zuten pertsonak](#)
- [Enpresak kudeatutako aparkalekuak zenbat betetzen diren.](#)
- [Autobusei buruzko informazioa \(antzinatasuna, edukiera...\)](#)
- [Prensa aretoa](#)
- [Herritarren postontzian TUVISArri buruz egindako kontsultak.](#)

### Berrerabili daitezkeen datuak

- [Lineei buruzko informazioa.](#)
- [Informazioa denbora errealean.](#)

## AMVISA

### Enpresari buruzko informazioa

- [Enpresaren deskribapen orokorra](#)



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

- [Harremanetarako datuak](#)
  - [Antolakuntza-egitura](#)
  - [Amvisaren estatutuak](#)
  - [Administrazio Kontseiluaren bileren aktak](#)
  - [Udal araudiak / Udalarenak ez diren araudiak](#)
  - [Langileak eta lan-harremanak](#)
  - [Urteko oroitidazkia](#)
  - [Urteko eta hainbat urteko planak](#)
  - *[Aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa](#)*
    - [Urteko aurrekontua](#)
    - [Aurrekontua betetzea](#)
    - [Urteko kontu ikuskatuak](#)
    - [Emandako eta jasotako diru-laguntza eta laguntza publikoak](#)
    - [Kontratak](#)
    - [Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia](#)
    - *[Bezero eta gizartearekiko harremanak](#)*
      - [Zerbitzuaren datu adierazgarriak](#)
      - [Edateko uraren kalitatea](#)
      - [Kontratatzaiilearen profila](#)
      - [Lan-eskaintzak](#)
      - [Tramiteak eta kudeaketa](#)
      - [Tarifak](#)
      - [Interpretatu ezazu zure faktura](#)
      - [Herritarrekiko komunikazioa](#)
      - [Gasteizko uraren kudeaketarekin lotutako txosten eta azterlanak](#)
      - [Izenpetutako hitzarmenak](#)
      - [Sareko lanetan parte hartzea](#)
      - [Gizarte erantzukizuna](#)
- **21 ZABALGUNEA**
  - *[Enpresari buruzko informazioa](#)*
    - [Oinarrizko datuak: harremanetarako, jarduera-eremua edo zuzendaritza-organoak.](#)



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

- [Antolakuntzaegitura: Batzar Nagusia, administrazio-kontseilua, zuzendariak](#)
- [Batzarraren eta administrazio-kontseiluaren bilkurak \(gai-zerrendak eta erabakiak\)](#)
- [Sozietatearen estatutuak | Arauak](#)
- [Enpresaren hitzarmen kolektiboa.](#)
- [Langileei buruzko informazioa: plantilla, ordainsariak, sindikatu-ordezkaritza](#)
- Enplegu eskaintzak: egun ez dago
- Enplegu planak: [V. Enplegu Planari buruzko informazioa.](#)  
*[Aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa](#)*
- Urteko aurrekontua (xls - pdf):
  - [2018ko aurrekontua](#)
  - [2017ko aurrekontua](#)
  - [2016ko aurrekontua](#)
- [Goi-karguen ordainsariak](#)
- Urteko kontu ikuskatuak (pdf):
  - [2016ko kontu ikuskatuak](#)
  - [2015eko kontu ikuskatuak](#)
- Diru-laguntzak eta laguntzak:
  - [Jasotako diru-laguntzak \(2014-2017\) \(xls\)](#)
  - Laguntzen dosierak (pdf): [2016. urtea](#) | [2017. urtea](#)
- [Lehiaketak eta kontratuak \(kontratatzailearen profila\)](#)
- [2017an orokorrean ordaintzeko batez besteko aldia](#)  
*[Jarduera eremuak](#)*
- [Udalaren Etxebizitza Bulegoa](#)
- [Birgaitzeko laguntzak](#)
- [Azterlan sozio-ekonomikoak](#)
- [Europako proiektuetan parte hartzea: SmartEnCity, Enerpat-Sudoe](#)

Enpresa horien izaera dela eta, euren jarduerari buruz ematen duten informazioa desberdina da, baina, hala ere, Gardentasun Atari orokorrean adierazten diren antolaketa/erakunde eta aurrekontu/finantza izaerako datuak biltzen dira.



## Informazio publikoa eskuratzea

### 3.1 Lege-esparrua eta prozedura

19/2013 Legearen III. Kapituluak **informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen du, hots, gardentasunaren beste dimentsioa, "gardentasun pasiboa"** deitu ohi zaiona "gardentasun aktiboari" kontrajarriz, zeina txosten honetan aipatutako publizitate aktiboko betebeharren arabera arautzen den. Legearen 12. eta 13. artikuluek honako hau diote:

*12. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.*

*Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan.*

*Halaber, autonomia-erkidegoko araudia aplikatu beharko da, betiere bakoitzaren esku-menen barruan.*

*13. artikulua. Jendaurreko informazioa.*

*Informazio publiko dira titulu honen aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere.*

19/2013 Legean eskubide hori baliatzeari buruz ezarritako erregulazioak – 2/2016 Legearen informazio publikoa eskuratzeari buruzko printzipioei eta erreklamazio-organoari buruzko III. Kapituluaren ezarritakoarekin sendotuta– Gasteizko Udalaren barruan hori gauzatzeko **administrazio-prozedura bat abian jartzea ekarri zuen.**

Horren haritik, **informazio publikoa eskuratzeko eskubidea** izeneko gune bat gaitu zen gardentasun-atarian (herritarren partaidetzako izapideen ataleko **udalaren egoitza elektronikotik** eta udalaren webguneko "tramiteak eta tokiko gobernua" zabalgarritik ere eskuragarri). Gune berri horretan honakoak jasotzen dira: prozeduraren lege-esparrua, eskabideak bideratzeaz arduratzen den atala, jarraibideak, eskabidea ukatuz gero gero nola erreklamatu behar den..... Udalak **abiarazi zuen tramitea** aurrez aurre edo telematikoki (egoitza elektronikoren bidez) egin daiteke, eta jasotako eskabideen estatistikak ematen hasi zen 2016an.

19/2013 Legeak 17. artikuluan adierazten duenez, eskabidea – arrazoitu beharko ez dena– "honako hauek egiaztatze aukera ematen duen bitartekoren baten bidez aurkeztuko da: eskatzailearen nortasuna, eskatzen den informazioa, harremanetarako helbidea (ahal bada elektronikoa) jakinarazpenak egiteko, eta eskatutako informazioa zein modalitatetan jaso nahi den". 2/2016 Legeak, publizitate aktiboko xedapenetan egiten duen bezala, are gehiago zehazten du,



eta 62. artikuluan xedatzen duenez, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea “antiformalismoan eta garapen-samurtasunean oinarritutako prozeduren bidez baliatuko da”. **Udalaren kasuan, prozeduren gaiak bilakaera izan zuen 2016an**. Hasieran, udalean sartzeko eskabide-prozeduran erregistro elektronikoa ezarri zen sarrera telematikoko bidetzat (egun eskura dauden sinadura digitaleko bitartekoen bidezko sinadura eskatzen duena). Ekitaldia amaitzean, ordea, eskaerei posta-helbide batean ([informazioa@vitoria-gasteiz.org](mailto:informazioa@vitoria-gasteiz.org)) erantzuteko aukera gaineratu zen, eskubidea baliatzeko orduan e- **NANa, ziurtagiriak, gakoak eta abar eduki beharra oztopo izan ez zedin**. Helbide horretara behar bezala betetako inprimaki bat bidali behar da, ezinbestean, 39/2015 Legean ezarritako eskakizunetan oinarrituz.

**Ezin dugu modu frogagarrian ziurtatu aldaketa honekin informazioa eskuratzeko eskabideak 2017an bultzada eduki izana, nahiz eta txosten honek xede duen urtean igo egin den eskabideen kopurua** (igoera moderatua, 30etik 32ra), izan ere herritarrekin eskubide hau baliatuz egiten diren harreman kopurua txikia da, ohiko bideen bidez (010, HLB eta herritarren postontzia) egin ohi direnekin alderatuta. Baina, 2017an **nabarmen igo da prozedura hau erabiltzen duten erakundeen kopurua** (nortasun juridikoa izan ala ez). Bikoiztu egin da 2016aren aldean, eta horren ildotik, elkarteak, enpresak,... berariaz sartu dira estatistiken barruan.

### 3.2 **Estatistikak**

Gardentasun atariak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeari buruz egiten diren [estatistikak](#) biltzen ditu. 2/2016 Legeak xedatzen duenez, honako alderdiei buruzko informazioa eman behar da: zenbat eskaera aurkeztu diren; zenbat eskaera ebatzi diren; batez beste zein epetan ebatzi diren; zenbat eskaera onetsi diren oso-osorik, zenbat zati batean, eta zenbat beste pertsona bat aurka egonda; zenbat eskaera ezetsi diren, eta zenbat ez diren onartu; zati batean edo beste pertsona bat aurka egonda onesteko arrazoiak, ezestekoak, eta ez onartzeakoak; maizen eskatutako informazioa; eta eskatzailearen profila (adin-tartea, sexua, eta eskaeran erabilitako hizkuntza).

**Udalak bi hilean behineko maiztasunarekin eskaintzen dituen estatistikak bete egiten ditu 2/2016 legeak ezarritako baldintzak, eskatzaileen profilari buruzko informazioa salbu, ez baitira adin-profilari buruzko datuak biltzen**. Datu hori eta eskatzailearen sexuari dagokiona 2017aren hasieran gehitu zitzaizkion eskabide-formularioari, baina ekitaldi honetan ez dira datu horiek aztertu, guztira jasotako 32 eskabideetan ez baitira ageri.

Txosten hau idazteko unean, Udal Administrazioaren Saila (Informazioaren Teknologia) tramitazioetarako dagoen **barne aplikazioan azken ukituak egiten ari da, estatistika txosten automatizatuak egiteko aukera egon dadin**. 2018. urtea amaitu aurretik lanabes hau inplementatzea eta estatistikak open data udal atarian formatu irekian emateko aukera egotea da xede.

#### **2017. urtea**

- Jasotako eskabideak: 32
- Eskabideak, sarbidearen arabera: Aurrez aurre (31) / telefonoz (1)
- Eskatzaileen sexua: Emakumeak 6 (% 19) / gizonak 17 (% 53) / erakundeak 9 (% 28)
- Eskabideen hizkuntza: Gaztelania (32)



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

Eskabideekiko erantzun-maila	
<b>Emandako erantzunak</b>	<b>29 (% 90)</b>
<b>Epe barruko erantzunak:</b>	18
<b>Erantzuteko bidea:</b>	Posta arrunta: 10 Posta elektronikoa: 14 Beste:5
<b>Onetsitako eskabideak</b>	24 (% 75)
<b>Zati batean onetsitako eskabideak</b>	2 (GOFIra eta Herritarren postontzira berbideratuta)
<b>Ezetsitako eskabidek eta arrazoia</b>	3 Arrazoia: Argitaratutako informazioa edo gehiegizkoa.
<b>Erantzun gabeak</b>	3 (2018an itxita)
<b>Gaien laburpena:</b>	Ekonomia-sustapena, ingurumena eta iraunkortasuna, ogasuna, funtzio publikoa, herritarren segurtasuna, herritarren parte-hartzea, hirigintza..



## Gardentasun-atarira egindako bisitak

Txosten honetan dagoeneko adierazi dugu udalaren webgunearen ezaugarri nagusietako bat zein den. Gasteizko Udalak webgune bakarra dauka<sup>6</sup>, domeinu bakarrarekin ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)). Bertan elkarren artean gaika taldekatutako milaka web-orri eta gai horien arabera hainbat "atari" edo sarrera berezi daude, eta url helbide laburtuen inguruan konfiguratzen dira ([www.vitoria-gasteiz.org/kultura](http://www.vitoria-gasteiz.org/kultura) o <http://www.vitoria-gasteiz.org/datuirekiak>, adibidez).

**Domeinu bakarrek filosofia hori**, helbide nagusi bakarrekoa alegia, ona da herritarrentzat, udal webgune orok "gardentasuna" dakarrela jotzen baitugu. Hala ere, filosofia **horrek baldintzatu egiten du webguneko edukietarako sarreraren azterketa**, Gardentasun Atariaren "zati" gisa biltzen diren orriak, berez, webgunearen zati direlako. Gardentasun Ataritik lotura duten udalaren webguneko edukien kasuan, aldi jakin batean zenbat sarrera edo bisita izan dituzten jakin dezakegu, baina ezin dugu sarrera horien trazabilitatea zehatz ziurtatu, bisita batzuk Atariko loturetatik iritsiko direlako, beste batzuk webguneko beste gune batzuetatik eta beste batzuk kanpoko bilatzaile edo web-orrietatik. **Atalak edukietarako sarbideen diseinuan lan egiten dihardu** 2018an, webguneko bisitak aztertzeko erabili ohi dugun Google Analytics-en dauden funtzioak baliatuta. Honela, beraz, fidagarriagoak izango dira ataritik bisitatutako gardentasun-dukiei buruzko datuak.

Horrenbestez, Atariko web-orri nagusietara (orri nagusia eta gaien arabera hiru orriak) egindako bisiten datuak eskaintzen dira, eta Ataria martxan jartzearekin batera ad-hoc sortu zirenak zerrendatzen dira, webguneko beste atal batzuetatik elkarlotuta dauden arren uste baitugu bertatik lehenetsuz kontsultatzen direla (udal langileak, goi-karguen ordainsariak, ondasunen aitorpenak, kontratuen estatistikak, eta abar).

Orri nagusiak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitako ehunekoa
---------------	----------------	-------------------------	----------------------------

<sup>6</sup> Berez bi dira, izan ere <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>, zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa buruzko 11/2007 Legean ezarritakoaren arabera ingurune seguru gisa eratu, [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) gunearekiko webgune independentea baita. Hala ere, bi plataformen arteko elkarrengarritasun mailarik handiena lortu nahi izateak bi domeinuen elkarrekin partekatzen dituzten html edukiak (orriak) sortzea dakar, CMS (content management system) tresna beraren bitartez kudeatzen direlako, eta beraz eduki baterako sarrera webgune orokorraren barnean edota egoitza elektronikoa egin ahal izan da.



Orri nagusiak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitakoen ehunekoa
Gardentasun-ataria (hasiera-orria)	9.411	6.683	% 30,01
Udal webgunea	10.037.170	7.094.922	% 51,88
<i>Elkarren arteko lotura</i>	<i>Guztiaren % 0,09</i>	<i>Guztiaren % 0,09</i>	<i>42<sup>a</sup>, % 15 gutxiago</i>

2016an bezala, gardentasun-atariko orri nagusira egindako bisitak guztira egindakoen % 0,1 inguru izan dira ekitaldi honetan. Guztira egindako bisita kopurua % 16 jaitsi bada ere (2016an 11.225 bisita izan ziren), jaitsiera hori konpentsatu egiten da web orrira guztira egindako bisita kopuruarekin. Beraz, **ehunekoa ia kopuru berean mantendu da** (% 0,10 izatetik % 0,9 izatera). Datuek 2016an adierazitako bera erakusten dute— mantendu egiten dira ikusitako orri bakarren atalean, hau da, orria behin gutxienez ikusi den saio kopurua— : **gardentasun-atarian, ikusitako orri bakarrak bisita guztien % 71 dira** ( % 70a udalaren webguneari dagokionez). Egia da ehuneko aldea gutxituz doala (2016an hiru hamarren ziren), baina **gardentasun-atariko edukietara berriazko bidetik sartzen dela erakusten jarraitzen du**. Errebotearen ehunekoa apur bat baxuagoa dela ikusteak areagotu egiten du inpresio hori eta, horrenbestez, orri honetan sartzen direnek beste orrialde batzuetara joan aurretik denbora bat ematen dutela, eta zerbait irakurri edo bilatzen dutela jotzen dugu.

Gaikako orriak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitakoen ehunekoa
Erakundearekin eta antolakuntzarekin lotutako informazioa	5.255	3.008	% 38,35
Ekonomiarekin eta finantzazioarekin lotutako informazioa	2.030	1.235	% 47,62
Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak	1.172	755	% 64,71
<i>Udal webgunea</i>	<i>10.037.170</i>	<i>7.094.922</i>	<i>% 51,88</i>



Eduki-orriak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitakoen ehunekoa
Goi-karguen ordainsariak	2.015	1.469	% 59,70
Udal langileak	4.248	2.944	% 49,37
Jardueren eta ondasunen erregistroa	361	209	% 48,61
Gai-zerrenda eta akten kontsultak (organo espezifikoko bakoitza kontsultatzeko sarrera ematen duen orria)	1.088	685	% 17,71
Osoko bilkuraren zuzeneko emanaldiak streamingen	4.179	2.651	% 54,58
Zerbitzuen kostuen azterketak	1.055	454	% 44,21
Kontratuen, diru-laguntzen eta abarren estatistikak eta zerrendak*	726	365	% 25
Alkatearen erakunde-jardueratik eratorritako gastuak	640	315	% 65,93
Legealdiko plan estrategikoa	1.411	842	% 37,94

Edukien orri hauetan, hainbat orrik bisita ugari izan zituztela ikusten da: streaming bidezko emanaldienak (2016ko uztailetik abian), udal langileenak eta ordainsariak. 2016ko ekainean, kontratuen estatistika eta zerrenden edukia jarri zen abian gai horretako lotura guztiak biltzeko, eta hilean hiru bisita izatetik izatetik hilean 60 izatera pasa da (2016ko sei hilabetetan 16).



## Ondorioak

Gasteizko Udalak, funtsean, bete egiten ditu indarrean dagoen lege-esparruak ezarritako publikitate aktiboko betebeharrak. Horretaz gain, erantzun egiten die informazioa eskuratzeko eskabideei eta erraztu egiten du herritarrekiko elkarrizketa, baliabide digital zein ez digitalen bitartez. Dena dela, mantendu egiten dugu gardentasunari buruzko ideia nagusi hau: gardentasuna etengabeko ebaluazioa eta hobekuntza egitera behartzen duen prozesua da; ez du atzera egiterik eta horregatik, betebeharrak betetzen diren eta nola betetzen diren ikusteko egiten den berrikuspen kritikak medio, zer hobetu badagoela adierazi behar dugu, batez ere informazioaren argitasun eta erraztasunari dagokienez. Identifikatutako **publizitate aktiboko 53 betebeharren % 89 betetzen dugu**, baina, txosten hau egitean, hainbat proiektutan lanean dihardugu, batetik, itxi gabe dauden sei betebeharrak horietako batzuk betetzeko eta, bestetik, eta batez ere, betetzen diren 47 konpromisoetako informazioa hobetzeko.

Horrenbestez, abian jarri den gobernu-plan estrategikoaren kontu-emateen atariari gehitu egingo zaizkio, datozen hilabeteetan, udal jardunaren gardentasunaren kalitatea eta "kopurua" nabarmen hobetzen lagunduko duten bi elementu:

- bata, udal aurrekontuei buruzko atari grafiko interaktibo eta erakargarri bat, herritarren hizkeran.
- bestea, udal antolakuntzako zerbitzuen katalogo egituratu, oso eta eguneratua, zein herritarrekin komunikatzeko eta informaziorako eta kudeaketarako tresna gisa antolatuko baita, eragin-kortasun eta argitasun ikuspuntutik.

Bi proiektuak azken faseetan daude eta, horiek ezartzearekin batera, gobernu irekiaren berriazko ataria jartzeari ekingo zaio, eta azken hau gardentasun-atari guztia berrikusteko ardatz gisa erabiliko dugu.

Gardentasun aktiboko betebeharrak itzulita, mantendu egiten dira 2016an betetzen ziren itemak, eta zenbaitetan, hobekuntzak izan dira edo izango dira (aipatu diren bi alderdiak). Hala ere, oraindik ez dira bete izan txostenean jasotzen ziren hainbat alderdi: erantzukizuneko lanpostuetarako eskatzen den profila; zuzendaritza karguen ibilbide profesionala; kontratuak atzera botatzeko edo kontratuari uko egiteko erabakiei buruzko informazioa; sindikatu-ordezkaritzako organoetako kideen zerrenda, besteak beste. Horiei guztiei, gehitu egin behar zaie Gardentasunerako Kontseiluak 2016ko txostenari buruzko irizpenean egindako gomendioren bat, ez baita 2017an zuzendu, esaterako: urteko eta hainbat urteko plan eta programetako "fitxa ereduak" egitea, udaleko alderdi politikoen kontabilitatea argitaratzea, edo Organo Ekonomiko Administrazioaren ebazpenak eta udaleko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuak egindako txostenak argitaratzea, hirugarrenen aurrean ondorio juridikoak badituzte. Berrikuntza gisa, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

Legea indarrean jarri zenetik, erakundearen araugintza plana argitaratu beharra dago, eta 2017an ez da argitaratu.

Gardentasunarekiko konpromisoa mantendu egiten dugu, eta horren adierazle ona da, hiru arlo garrantzitsutan egindako lana: kontu-ematea, zerbitzuen katalogoaren definizioa eta aurrekontuei buruzko informazioa modu grafikoan eta herritarren hizkeran jartzea. Halaber, aurrera jarraitzen du Open Data Atariaren aldeko apustuak -dagoeneko estatuko dtos.gob plataforman sartu da- eta lanean jarraitzen dugu gobernu irekiaren politika guztiak epigrafe bakar batean jartzen, udalaren web plataforman dagoen informazio guztia erraztu eta antolatzea xede.

Hori da jakinarazi beharreko guztia, Vitoria-Gasteizen, 2018ko apirilaren 19an.

Gardentasunaren eta Edukien Atala  
Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzua



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## ERANSKIN GRAFIKOA: IDENTIFIKATUTAKO LEGE BETEBEHARREN BETETZE-MAILA



	Guztira	Bai		Ez
			Egiteke dauden hobekuntzak	
Erakundearekin eta antolakuntzarekin lotutako informazioa	15	15	4	0
Garrantzi juridikoa duen informazioa	9	6	0	3
Ekonomiarekin eta finantzazioarekin lotutako informazioa	16	14	6	2
Langileei buruzko informazioa	4	4	1	0
Politika publikoei buruzko informazioa	4	4	1	0
Beste zenbait Alberdi	5	5	0	0
<b>Guztira</b>	<b>53</b>	<b>47</b>	<b>12</b>	<b>6</b>

% 25

% 50

% 75

% 100



■ Bete dira

□ Ez dira betetzen